

Euskara eta Hezkuntza Saila

Euskara ikasteko dirulaguntzak. 2023ko deialdia

Bilboko Udalak euskara ikasten ari diren pertsonentzako dirulaguntza deialdia egiten du urtero. Bere helburua da euskararen ezagupena areagotzea bilbotarron artean eta, bide batez, erabilera sustatzea eta normalizatzea Bilbon, Euskara Sustatzeko Ekintza Planaren (ESEP) ardatz estrategikoei jarraituta: euskararen jabeakuntza, erabilera eta kalitatea.

Aurtengo deialdian aldaketa esanguratsuak egin ditugu emango diren dirulaguntzak jende gehiagorengana hel daitezen.

Hona hemen, labur bilduta, 2023ko deialdiaren oinarrizko informazioa:

- **Aurrekontua:** 700.000 euro. 2022an baino 480.000 euro gehiago.
- **Helburua:** euskaltegi homologatuetan ikasten ari diren bilbotarrei euskara ikasteko dirulaguntza ematea.
- **Diru kopurua mailaren arabera:** azpimaila bakoitza gainditzeagatik diru kopuru bat jasoko du herritarrak, A1A0 azpimailatik hasita C2C2 azpimailara arte. Beraz, azpimaila guztiak hartzen dira kontuan. A1A0 azpimaila (0 urratsa) diruz lagunduko da lehen aldiz.

Azpimaila bat gaindituta	400 €
Bi azpimaila gaindituta	800 €
Hiru azpimaila gaindituta	1.000 €
Lau azpimaila edo gehiago gaindituta	1.200 €

- **Hartzaileak:**
 1. Gurasoak: 2009. urtetik aurrera jaiotako haurren gurasoak.
 2. Aisialdiko eta kiroleko begirale eta entrenatzaileak:
 - a) Aisialdiko begirale-titulua edo kiroleko begirale- edo entrenatzaile-titulua izatea.
 - b) Aisialdiko begirale-titulua edo kiroleko begirale- edo entrenatzaile-titulua lortzeko ikasketak egiten aritzea.

Malgutu egin da talde honetan sartzeko betekizuna, ez baita lan kontratua eskatzen. Beraz, aisialdiaren eta kirolaren esparruan aritu daitezkeen

pertsona potentzial guztiek izango dute aukera dirulaguntza eskatzeko, ikasketak egiten ari direnak barne.

3. Errenta baxuko pertsonak:

- Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailak egiten duen beka-deialdian agertzen den diru-sarreraren taula oinarritzat hartu da eta kopuru horiek 1,50eko koefizientearekin biderkatu dira.
- Modu horretara bilbotarren batuz besteko errenta pertsonalaren azpitik dauden pertsona ia guztiak hartuko dira kontuan (EUSTATEk 2022ko urriaren 24an argitaratutako datu ofiziala Bilboko batuz besteko errentari buruzkoa: 22.464 euro).

Kide kopurua	Unitateko kide konputagarrien diru-sarrerak, guztira
1	22.239 €
2	37.962 €
3	51.528 €
4	61.194 €
5	68.397 €

- **Noiz argitaratu:** deialdia apiril-maiatzean argitaratzeko aurreikuspena dago.

Egokitzapen hauek guztiak erabaki dira 2023ko dirulaguntza deialdia kudeatzeko dauden baliabide ekonomikoak behar bezala erabili, eta honako alorretan eragiteko asmoarekin, behinik behin:

1. Familia transmisioan, gurasoak funtsezkoak baitira seme-alabei euskara transmititzeko.
2. Aisialdian eta kirolean, esparru horiek gazteen euskararen erabilerari begira estrategikoak direlako.

Horrez gain, gero eta hiritar gehiago erakarri nahi dira euskarara, arrazoiak emanaz euren hizkuntza-gaitasuna areagotzeko ahalegina egin dezaten. Errenta baxua daukaten kasuetan, diru-baliabideak haien eskura jarri ditu Udalak euskara ikasteko aukerak zabalduz.

2023ko martxoa